

BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

1146

EBAZPENA, 2021eko otsailaren 16koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaria, zeinaren bidez arautzen baitira 2021eko ekitaldian emango diren dirulaguntzak, asoziazionismoa sustatzeko eta emakumeek Euskal Autonomia Erkidegoko esparru guztietan parte hartzeko.

Emakunde eratzeko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren arabera, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen funtsezko helburua da emakume eta gizonen berdintasun erreala eta eraginkorra lortzea, Euskal Autonomia Erkidegoko politikagintzaren, ekonomia eta gizartearen maila eta esparru guztietan. Emakunderen helburuak dira, beraz, sexuen arteko berdintasuna bideratzeko baldintzak sustatzea, berdintasun hori, izatez eta zuzenbidez, bere osotasunean garatzeko dauden oztopoak kentzea, eta emakumeen aurkako diskriminazio era guztiak desagerraraztea EAEn.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 24.3 artikuluan, EAEnko administrazio publikoei eskatzen zaie susta ditzatela emakumeen eta gizonen berdintasun erreala lortzeko jarduerak egiten dituzten elkarteak, eta emakumeen autonomia bultzatu eta emakumeen estatus soziala, ekonomikoa eta politikoa indartzea xede dutenak.

Bestalde, 4/2005 Legearen 15.1 artikuluan xedatzen denez, legealdi bakoitzean, plan orokor bat onetsi behar du Eusko Jaurlaritzak, non zenbait jarraibide eta gidalerro jasoko baitira koordinatuta eta orokorki, EAEnko botere publikoek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango dituzten jarduerak orientatzeko. Hala, indarrean dagoen Berdintasunerako VII. Plana 5 printzipiok gidatzen dute: paradigma feminista, zeinak, teoria eta praktika gisa, ahalbidetzen baitu emakumeen eta gizonen berdintasun-ezak eta diskriminazioak nola eta zergatik gertatzen diren azaltzea eta ulertzea; genero-ikuspegia, zeinak, lana aztertzeke metodologia gisa, agerian uzten baititu berdintasun-ezak; interseksionalitatea, zeinak eskatzen baitu ekintza-proposamen konplexuagoa eta integratzaileagoa, non emakumeak, beren aniztasunetik, hizkuntzak, klaseak, etniak, jatorriak, sexu-orientazioak, dibertsitate funtzionalak eta abarrek zeharkatuak diren; emakumeen ahalduntzea, berdintasuna lortzeko ezinbesteko baldintza, zeina berez baita helburu, tresna eta prozesu; eta giza garapen jasangarria, zeinak baitakar giza premiak beste batzuk izatea, emakumeen beharrianak erantsi eta lehentasunezko hartzeagatik.

Horrenbestez, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak aurreikusten du 2021eko ekitaldian dirulaguntzak ematea irabazi-asmorik gabeko emakumeen elkarteei, fundazioei eta federazioei, eta xede eta jardun-eremu bakarra emakumeen eta gizonen berdintasun erreala sustatzea duten fundazioei.

Bestetik, deialdi hau Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen 2019-2021 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren babespean egiten da, zeina 2018ko urriaren 31ko Ebazpenaren bidez onartu baitzen (2019ko abuztuaren 12ko Ebazpenaren bidez aldatua). Era berean, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. tituluaren eta VII. tituluaren III. kapituluaren, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, eta lege horren araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan araututako dirulaguntza-araubideari lotuta dago deialdi hau.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea eta denbora-eremua.

Ebazpen honen xedea da arautzea Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak irabazi-asmorik gabeko emakumeen elkarteei, fundazioei eta federazioei, eta xede eta jardun-eremu bakarra emakumeen eta gizonen berdintasun erreala sustatzea duten fundazioei hurrengo artikuluetan xedatutakoari jarraikiz emango dizkien dirulaguntzak, proiektuak egin ditzaten 2021eko ekitaldian, hots, urtarrilaren 1a eta abenduaren 31 bitartean.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Erakundearen aurrekontuetan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetatik aterako dira aurreko artikuluan adierazitako xedeak lortzeko diru-baliabideak. Zenbatekoa laurehun mila (400.000) eurokoa izango da.

3. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Ebazpen honek araututako dirulaguntzak eska ditzakete bai Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen aplikazio-eremuko irabazi-asmorik gabeko emakumeen elkartek eta federazioek, bai Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen aplikazio-eremuko fundazioek, baldin eta haien xede eta jardun-eremu bakarra emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea bada eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan xedatutako betekizunak betetzen badituzte; horien artean, dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak egunean izatea, bai eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ere; eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50. artikuluen 5. eta 6. apartatuetan xedatutako baldintzak betetzen badituzte. Elkarte, federazio eta fundazio horiek, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan garatu beharko dute beren jarduera, eta egoitza soziala ere Euskal Autonomia Erkidegoan eduki beharko dute.

2.– Dirulaguntzak eman eta, hala badagokio, ordaindu ahal izateko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek ematen dituzten izaera bereko laguntza edo dirulaguntzen esparruan hasitako eta oraindik izapidetzen ari diren itzulketa- edo zehapen-prozedura guztiak amaitu beharko dira. Laguntza ordaintzeko, halaber, beharrezkoa izango da betebeharrak ordainduta izatea.

4. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen proiektuak.

1.– Indarrean dagoen EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planaren esparruan, eta betiere ikuspegi feminista eta interseksionala txertatuta, proiektuek honako hauek egitera egon beharko dute bideratuta:

a) emakumeen eskubideak hedatzea aniztasunetik, emakume-mugimenduaren historiatik eta pentsamendu feministatik;

b) emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko ikerketa eta dibulgazioa, eta emakumeen erreferenteak eta genealogiak sortzea;

c) ikuspegi feminista duten prozesu parte-hartzaileak sustatzea, ahalduntze indibiduala, kolektiboa, soziala eta politikoa bultzatuko dutenak, horrela emakumeen presentzia, protagonismoa eta lidergoa finkatuz askotariko prozesu eta espazioetan;

d) esperientziak, belaunaldien arteko itunak eta elkarte-mugimenduaren koordinazioa sustatzea eta trukitzea, sareko partaidetza-prozesuen bidez;

e) prestakuntza eta sentsibilizazioa, paradigma feministatik;

f) gizonen erantzunkidetasuna eta kontziliazioa sustatzea etxeko lanetan eta arduetan eta familia- eta gizarte-zaintzan.

Dirulaguntzak jaso ahal izateko, trebetasunen ikaskuntzarako proiektuak (eskulangintza, elektrizitatea, sukaldaritza, arotzeria, etab.) beste jarduera batzuekin osatu beharko dira, hain zuzen ere, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko sentsibilizazio-, informazio- edo trebakuntza-jarduerekin, eta/edo genero-ikuspegia barne hartu beharko dute.

2.– Honako kasu hauetan proiektua ez da diruz lagunduko, baldin eta:

a) Aisialdirako baino ez diren jarduerak biltzen badituzte.

b) Beste erakunde batzuei eskainiko zaizkien zerbitzu eta ekintzak finantzatzea badute xede.

c) Genero-ikuspegia barne hartzen ez badute.

3.– Aurkeztutako eskabide baten helburua bat ez badator dirulaguntzen lerro honekin, baina organo kudeatzaileak uste badu sar daitekeela administrazio-ebazpena eman aurreko fasean dagoen Emakunderen beste laguntza-lerro batean, organo horrek erabaki dezake eskabide hori beste laguntza-lerro batean sartzea, hots, bere helburura gehien gerturatzen den laguntza-lerroan. Eskabidea aurrena jaso duen lerroaren organo kudeatzaileak eskabide hori bidaliko dio azkenean hura hartuko duen lerroaren organo kudeatzaileari, eta horren berri emango zaio erakunde eskatzaileari, jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean bidezkotzat jotzen dituen alegazioak egin dituzan. Epe hori igarota, erakunde eskatzaileak aurka egin ez badu, lerro-aldaketa hori onartu duela ulertuko da.

4.– Gehienez ere bi proiektu aurkeztu ahal izango ditu erakunde bakoitzak. Biak eskabide bakaurrean entregatuko dira.

5. artikulua.– Laguntzak emateko prozedura eta diru-zenbatekoa zehaztea.

1.– Laguntzak esleitzeko, artikuluko honen 5. paragrafoan aurreikusitako norgehiagoka-prozedura erabiliko da.

Horretarako, garaiz eta moldez aurkeztutako eskabideak aztertuta esleituko dira laguntzak, eta onartutako aurrekontuaren % 100 finantzatu ahal izango da, 10. artikuluan zehaztutako irizpideei jarraikiz. Erakunde eta proiektu bakoitzari 12.000 euro emango zaizkio gehienez ere, nahiz eta proiektu bakoitzaren guztizko zenbatekoa kopuru hori baino handiagoa izan.

2.– Aurreko apartatuan aipatutako aurrekontua onartzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

Dirulaguntza kalkulatzeko, gehieneko 12.000 euroko zenbatekoa hartuko da erreferentziazat bi proiektuetarako, proiektuaren guztizko kostua edo Emakunderi eskatutako zenbatekoa jarduera hori baino gehiagokoa bada ere.

Gastu arruntak soilik izango dira diruz lagungarri, baldin eta gastu horiek nahitaez egin behar badira eta erakunde eskatzaileak aurkezten duen proiektuaren aurrekontu banakatuan eta xehatuan jasota badaude, eta proiektuaren garapenari zalantzarik gabe lotuta badaude, hala nola: materialak, inprenta, laguntza teknikoa, joan-etorriak, aretoen alokairua, diruz lagundutako jardue-

rarekin zuzenean lotutako telefonoa. Justifikazioaren unean, gastu horiek ezin izango dute inola ere gainditu emandako dirulaguntza osoaren % 15.

– Ez dira kontuan hartuko erakunde eskatzailearen ohiko funtzionamendutik eratorritako gastuak, hala nola argia, gasa, telefonoa, altzariak, ordenagailuak eta abar.

– Langileen gastuak barne hartuko dira (soldatak eta Gizarte Segurantzza), baldin eta hartzaileak diruz lagundutako proiektua garatzen soilik jarduten duten pertsonak badira.

– Dieten eta joan-etorrien baremo-erreferentzia izango da zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan (ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuak aldatua) ezarritakoa, betiere jardueren garapenarekin hertsiki lotuta badaude.

– Profesionalek arlo horretan emango duten prestakuntza orduko 90 eurokoa izango da gai orokorretarako edo lehenago emandako edukietarako, eta orduko 150 eurokoa prestatu beharreko eduki espezifikoko edo teknikoagoetarako.

– BEZ kengarriaren zenbatekoa ezingo da gastu diruz lagungarri izan, baldin eta erakunde eskatzailea zerga horren deklarazioa egitera behartuta badago. Inbertsio-gastuak ere ez dira diruz lagunduko.

3.– Artikulu honen eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikulua araberak diruz lagundu ezin diren gastuak agertzen badira erakunde eskatzaileak aurkeztutako aurrekontuan, hautaketa-batzordeak ez ditu zenbatuko gastu diruz lagungarrien aurrekontua zehaztean; izan ere, ebazpen-proposamenean, aurrekontu hori hartuko da aintzat dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko.

4.– Dirulaguntzaren zenbatekoa baremo hauen arabera kalkulatu da:

Hautatutako proiektu bakoitzari dagokion laguntzaren zenbatekoa zehazteko, aintzat hartuko da, balorazio-irizpideak aplikatuta, balorazio-fasean bakoitzak lortu duen puntuazioa. Puntuazioa ehuneko bihurtuko da, eta ehuneko hori aplikatuko da, hain zuzen ere, aurkeztutako aurrekontuan.

5.– Laguntzak emateko, honela jardungo da:

a) Proiektu batek, diruz lagungarri izateko, 31 puntu lortu beharko ditu gutxienez.

b) Lehenik esleituko dira 71 puntu edo gehiago lortu dituzten proiektuei dagozkien dirulaguntzak, eta deialdirako emandako guztizko zuzkiduraren hainbanaketa egingo da, baldin eta zuzkidura hori ez bada nahikoa aurrez kalkulatu zenbatekoen arabera dirulaguntzak ordaintzeko.

c) 71 puntu edo gehiago lortu dituzten proiektuei laguntzak eman ondoren, deialdirako emandako guztizko zuzkidura agortu ez bada, gainerako saldoa erabiliko da 31 eta 70 puntu bitartean lortu dituzten proiektuei laguntzak esleitzeko. Kasu horretan, a) apartatuan aurreikusitako modu berean jardungo da.

6. artikulua.– Eskabideak formalizatzeko eta aurkezteko epea, eta izapidetze elektronikoa.

1.– Hilabetekoa izango da eskabideak aurkezteko epea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Erakunde bakoitzak eskabide bakar bat aurkez dezake, gehienez bi proiektu bilduko dituena. 2 proiektu baino gehiago aurkezten badira, zein proiektu baztertzen edo mantentzen dituen erabakitze eskatuko zaio erakundeari.

3.– Eskabideak elektronikoki bakarrik aurkeztu beharko dira, eskabide-ereduaren arabera, behar bezala eta oso-osorik beteta, eta hurrengo artikuluan adierazitako agiriak erantsita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan ezartzen denez. Eskabideak, bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoki aurkeztuko dira: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0092707>

4.– Elektronikoki izapidetu ahal izango da ordezkari baten bidez, eta, horretarako, ordezkariak Eusko Jaurlaritzaren Ordezkarien Erregistroan eman ahal izango du izena, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkariak>

5.– Elektronikoki egindako eskabidearen ondorengo izapideak helbide honetan egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

6.– Prozedura honetako izapide guztiak telematikoki egin ahal izateko, erakunde eskatzaileek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak onartutako egiaztagiri elektronikoro izango da erabilgarri. Onartutako egiaztagiri elektronikoa esteka honen bidez kontsultatu ahal izango dira: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

7.– Erakunde eskatzaileek eskabidea eta agiriak euskaraz zein gaztelaniaz aurkez ditzakete, nahi duten eran. Erakundeak hautatutako hizkuntza erabiliko da prozeduran, Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

7. artikulua.– Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak.

Eskabideekin batera, agiri hauek aurkeztu behar dira:

1.– Oro har, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte erakunde interesdunek:

1.1.– I. eranskinaren arabera proiektua (2021eko abenduaren 31ra arte egin beharreko jarduerekin). Gehenez ere 10 orrialde, proiektu bakoitzeko.

1.2.– Eusko Jaurlaritzako elkarten erregistroko inskripzio-ziurtagiria eta zuzendaritza-batzorde eguneratua. <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/administrazio-erregistroak/-/elkarte-erregistroa-bilatzailea>

1.3.– Erakundearen estatutu eguneratuen kopia bat.

1.4.– Erakundearen identifikazio fiskaleko txartelaren kopia, lehenagoko dirulaguntzetan agiri hauek aurkeztu ez dituztenentzat, edo agirietan aldaketak egiten direnerako.

1.5.– Programa garatu behar duenak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko presakuntza eta/edo esperientzia duela egiaztatzen duten agiriak, 10.1 artikuluan jasotako irizpideak egoki baloratzeko.

1.6.– 10. artikuluan aurreikusitako esleipen-irizpideak egiaztatzeko aukera ematen duen beste edozein agiri, baremazioa egiteko.

2.– Administrazioaren esku dauden agiriak ez dira berriz aurkeztu beharko. Horrelakoetan, agiriak noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren adierazi beharko da eskabidean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

3.– Erakunde eskatzaileak, ondoren zehazten diren eskakizunak betetzen dituela frogatzeko, erantzukizunpeko adierazpena baliatu ahal izango du, eskabide digitalean bertan ageri den ereduaren arabera:

– Erakunde eskatzailea beste administrazio publiko batetik edo erakunde pribaturen batetik xede edo helburu bererako laguntzaren bat jasotzen ari da, eta/edo halakorik eskatu du, eta onartu zaio edo ebazteko zain dago.

– Erakunde eskatzaileak ez du dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion administrazio-zehapen edo zehapen penalik, ez eta laguntzak jasotzeko gaitasuna kentzen dion lege-debekurik ere.

– Erakunde eskatzaileak ez du administrazio-zehapen edo zehapen penalik sexu-bereizkeria egiteagatik, eta, bestetik, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera ez zaio debekurik jarri ebazpen honetan araututako laguntzak eskatzeko.

– Erakunde eskatzailea ez dago itzulketa-edo zehapen-prozedura baten pean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra edo haren organo autonomoek emandako izaera bereko laguntzei edo dirulaguntzei dagokienez.

– Erakunde eskatzaileak adierazten du egiazkoak direla eskabidean eta agirietan jasotako datuak, eta betetzen dituela indarrean den deialdian laguntza hauen onuradun izateko ezarritako eskakizunak.

4.– Organo kudeatzaileak automatikoki eta behar beste aldiz egiaztatuko du erakunde eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen ote dituzten, eta erakunde onarpenik gabe ere egin ahal izango du hori, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.3 artikulua xedatzen duena aplikatuz. Kasu horretan, eskatzaileak ez du dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko, eskatzaileak baimena berariaz ukatzen ez badu.

5.– Administrazioak edozein unetan eskatuko die eskatzaileei proiektua baloratzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio eta agiri osagarri oro, baita agiri originalak aurkezteko ere, egiazkoak direla egiaztatzeko.

8. artikulua.– Aurkeztutako eskabideko akatsak zuzentzea.

Dirulaguntza-eskabideak behar bezala betetzen ez badira edo 7. artikuluan eskatutako agiriren bat falta bada, falta den agiria aurkezteko edo atzemandako hutsa zuzentzeko eskatuko dio Emakunde interesdunari, eta, horretarako, hamar eguneko epea emango dio, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera. Horrez gain, ohartaraziko zaio ezen, eskatutakoa egin ezean, eskabidea ezetsiko dela; ezesteko, ebazpena emango da aurretiaz, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. eta 68. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz.

9. artikulua.– Hautaketa- eta jarraipen-batzordea.

1.– Hautaketa- eta jarraipen-batzorde bat osatuko da aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko eta emandako dirulaguntzen jarraipena egiteko. Deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen diren egiaztatuko du, eta, ondoren, esleipen-proposamen arrazoitua aurkeztuko dio Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariari, laguntzak emateko ebazpena eman dezan. Gero, justifikazioari dagokion jarraipena egingo du.

2.– Hautaketa- eta jarraipen-batzordeko kideak:

Presidentea: Zuriñe Elordi Romero andrea, idazkari nagusia.

Bokalak:

– Sonia González Ubierna andrea, Generoaren arloko Plangintza eta Ikerketaren arduraduna (programa eta prestakuntza arloa).

– Izaskun Garaigordobil Garmendia andrea, Administrazio eta Zerbitzu Arloaren arduraduna.

– Unay Casado Lataburu jauna, Aholkularitza Juridikoaren Arloko teknikaria.

– Haizea Miranda Martinez de Lopera andrea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko teknikaria.

Idazkaria: Aholkularitza Juridikoaren arloko teknikaria izango da idazkaria.

10. artikulua.– Dirulaguntzak esleitzeko irizpideak.

Dirulaguntzak esleitzeko, irizpide hauek hartuko ditu kontuan hautaketa-batzordeak, bakoitzari emandako puntuen arabera:

a) Proiektuaren kalitate teknikoa. 50 puntu, gehienez.

Proiektua formulatzea: VII. Planarekin identifikatzea, proiektuaren deskripzioa eta justifikazioa, xedeak formulatzea, publiko hartzailea... 20 puntu.

Metodologia parte-hartzailea. 5 puntu.

Ebaluazio-sistema. 5 puntu.

Genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala txertatzea. 10 puntu.

Proiektuaren originaltasuna eta sormena. 5 puntu.

Proiektuaren bideragarritasuna (aurrekontua eta kronograma). 5 puntu.

b) Proiektuaren berriazko neurriak. 40 puntu, gehienez.

Proiektua estrategia eta prozesu zabalago baten parte da, eta/edo hura sendotzen du. 5 puntu.

Hedapen-sistema. 5 puntu, gehienez.

Eragin soziala edo ahalmen biderkatzailea. 5 puntu.

Tokiko komunitatearen inplikazioa. Beste erakunde eta/edo administrazio publiko batzuekiko lankidetzak. 5 puntu.

Proiektuan aniztasuna eta/edo diskriminazio mota oro kontuan hartzeko aurreikusten diren neurriak. 5 puntu, gehienez.

Familia, lana eta bizitza pertsonala uztartzeko baliabideak, neurriak edo zerbitzuak jartzen dira. 5 puntu, gehienez.

Erantzukidetasuna sustatzen du, eta zaintza-lanak goستن. 5 puntu.

Jardueraren publizitatean edo garapenean euskara erabiltzea lehenesten du. 5 puntu, gehienez.

c) Erakundearen ibilbidea emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan. 10 puntu.

11. artikulua.– Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Deialdi honetan ezarritako dirulaguntzak bateragarriak dira gainerako erakunde publikoek edo pribatuek helburu berarekin ematen dituztenekin, baldin eta gainfinantzaketarik gertatzen ez bada, betiere. Gainfinantzaketarik egonez gero, dirulaguntza dagokion gehieneko mugaraino murriztuko da.

2.– Aurrekontuan sartu beharko da beste erakunde publiko edo pribatu bati dirulaguntza eskatu zaion, artean horren ebazpenik ezagutu ez arren.

12. artikulua.– Ebazpena.

1.– Deialdian aurkeztutako eskabideak prozedura bakar baten bitartez izapidetuko dira, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariari dagokio prozedura hori ebaztea, hautaketa- eta jarraipen-batzordearen proposamenaren arabera. Interesdunek ekarritako arazo guztiak erabakiko dira bertan.

2.– Ebazpen horretan, eskatutako dirulaguntza ematen den ala ez zehaztuko da. Ematen bada, erakunde onuradunaren izena edo izen soziala, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eta diruz lagundutako jardun-proiektua zehaztuko dira. Ukatutako eskabideen kasuan, ukatzeko arrazoiak ere jasoko dira.

3.– Ebazpena Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan emango da argitara, eta bertan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu jakinarazpen-ondorioak. Halaber, egoitza elektronikoaren bidez, banan-banan jakinaraziko zaie erakunde eskatzaileei, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, publikotasun-ondorioak izan ditzan. <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>

4.– Ebazpena bide elektronikoz jakinaraziko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

5.– Eskabideak ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epea gehienez sei hilabetekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe horretan ebazpenik jakinarazi ez bada, dirulaguntza-eskabidea ezetsi dela esan nahiko du, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan.

13. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Bat etorritik Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan xedatutakoarekin, honako betebeharrak izango dituzte ebazpen honetan araututako dirulaguntzen erakunde onuradunek:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Horrenbestez, dirulaguntzaren emate-jakinarazpena Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta, hamabost eguneko epean erakunde onuradunek dirulaguntzari berariaz eta idatziz uko egiten ezear, dirulaguntza onartu egin dutela ulertuko da.

b) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari jakinaraztea beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batetik xede bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak jaso izana.

c) «Datuen alta/Hirugarren interesduna» inprimakia bidaltzea, baldin eta aurreragoko dirulaguntzetan aurkeztu ez bada edo aldaketak izan baditu. Eranskin hori eskuratzeko: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

d) Dirulaguntza zertarako eman den, xede horretarako erabiltzea, non eta ez den aplikatzen 15. artikuluan ezarritakoa. Era berean, diruz lagunduko diren jarduerak Emakundek une oro egiaztatu ahal izatea onartu beharko da.

e) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, beren eginkizunetan dihardutela, deialdi honen kontura jasotako dirulaguntzen inguruan eskatutako informazioa ematea.

f) Diruz lagundutako jardueretan bariazio edo aldaketaren bat izan bada edo beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuk lortu badira, idatziz jakinaraztea, Erakundearen Zuzendaritzaren berariazko onespena beharrezkoa baita aldaketak egiteko.

g) Jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztatze- eta kontrol-ekintzak gauzatzeko erabil baitaitezke.

h) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen marka agerraraztea, Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Nortasunaren Eskuliburua arautzen duen abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuan adierazten den bezala (1999-10-26ko EHAA, 205. zk.), diruz lagundutako jardueren publizitate edo propaganda orotan, betiere posible bada publizitate horretan marka inprimatzea edo ikusteko moduan jartzea. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egoitzan eska daiteke marka. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen logotipoa beti jarri behar da diruz lagundutako proiektutik sortzen den agirian. Jardueraren publizitatean edo diruz lagundutako argitalpenetan adierazi behar da elkarte, federazio edo fundazioa dela jarduera horren edukiak bere gain hartzen dituen.

i) Erakunde onuradunek, aurkezten dituzten programa, memoria eta gainerako testu idatzietan, hizkuntzaren erabilera ez-sexistara egokitu behar dute idazkera, hala ezarrita baitago Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 18.4 artikuluan. Orobat, bazter utzi beharko dituzte genero-estereotipoak, eta aktiboki sustatu emakumeen eta gizonen berdintasun erreala, egiten diren irudi, jakinarazpen, argitalpen, programa, ikastaro eta abarretan.

j) EAEko bi hizkuntza ofizialetan egitea diruz lagundutako proiektuaren eta jardueren publizitatea, hala xedatuta baitago Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko abenduaren 22ko 6/2003 Legearen 39.2 eta 38.2 artikuluetan.

14. artikulua.– Dirulaguntza justifikatzea eta ordaintzea.

1.– Dirulaguntza zatika ordainduko da: % 75, 2021eko aurrekontu-ekitaldiaren kargura ordainduko da, ez bazaio uko egin 13.a) artikuluan aipatutako epean, eta gainerako % 25a, berriz, 2022ko aurrekontu-ekitaldiaren kargura, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak egiaztatzen duenean diruz lagundutako jardueretan sortutako gastu guztiak justifikatu direla; bigarren zatia ordaintzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dira 2022ko martxoaren 1era arteko epean (egun hori barne):

– Proiektu bakoitzeko jasotako funts publikoen erabilera justifikatzeko memoria teknikoa, II. eranskinaren arabera.

– Emakundek eta beste erakunde publiko edo pribatu batzuek diruz lagundutako jardueren gastu eta sarrera guztien memoria ekonomikoa, II. eranskinaren ereduaren arabera, kontuan iza-

nik diruz lagundu daitezkeen gastuek azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 31. artikuluan jasotako eskakizunak bete beharko dituztela.

– Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak diruz lagundutako gastua benetan egin dela egiaztatzen duten faktura edo ordainagiri originalak. Fakturetako edo agirietako gastuaren data ezin da izan 2021eko abenduaren 31 baino geroagokoa.

– 100 eurotik gorako fakturen kasuan, ordainketa egin izanaren egiaztatzea aurkeztu beharko da.

– PFEZaren ordainagiriak, halakorik badago.

– Erakunde eskatzailea BEZetik salbuetsita dagoela egiaztatzeko egiaztatzea, dagokion foru-ogasunak egin.

– Diruz lagundutako jardueratik sortzen den produktua, halakorik balego.

– Soldata eta Gizarte Segurantzako gastuak justifikatzeko agiriak, baldin eta hartzaileak diruz lagundutako proiektua garatzen soilik jarduten duten pertsonak badira.

– Diruz lagundutako jardueren publizitatean Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen lankidetzatza agertu dela eta elkarteek edo federazioek jarduerak bere gain hartu dituztela egiaztatzen duten egiaztatzeak.

2.– Justifikatutako gastuak proiektu bakoitzerako emandako dirulaguntzari dagozkionak izango dira.

3.– Proiektuaren behin betiko kostu osoa gutxitzen bada dirulaguntza kalkulatzeko kontuan hartu zen kostuari dagokionez, edo gastua egiaztatzeko agirien bidez (fakturak, ordainagiriak, etab.) justifikatzen den zenbatekoa emandako laguntza baino txikiagoa bada, dagokion zati proportzionala kenduko zaio dirulaguntzaren zenbatekoari.

15. artikulua.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

1.– Dirulaguntza emateko kontuan izandako baldintzaren bat aldatzen bada, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Zuzendaritzari jakinarazi behar zaio. Dirulaguntzak emateko ebazpena aldatu ahal izango da, baldin eta dirulaguntza emateko kontuan izan diren baldintzak aldatzen badira –betiere, dirulaguntzaren helburua bete bada– eta bestelako erakunde publiko edo pribatu batek, aldi berean, laguntzarik edo dirulaguntzarik eman badu.

2.– Erakunde onuradunek, salbuespen gisa, diruz lagundutako jardueraren edukia aldatzeko eskatu ahal izango dute, baita jarduera gauzatzeko eta dagozkion gastuak justifikatzeko modua eta epeak ere, jardueraren garapena aldatu eta zailtzen dituzten gorabeherak azaltzen direnean, eta aldaketa horiek baimendu egin ahal izango dira, hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira. Diruz lagundutako jarduera exekutatzeko epea aldatzeari buruzkoa bada eskatutako aldaketa, aldaketa hori baimendu egingo da, baldin eta exekuziorako epe berria 2021eko ekitaldian sartzen bada. Aldaketa egiteko eskabideetan behar beste arrazoitu beharko da zergatik aldatzen edo zailtzen den jardueraren garapena, eta eskabide horiek Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariari aurkeztu beharko zaizkio, aldaketa justifikatzen duten arrazoiak agertu eta berehala eta, betiere, proiektua gauzatzeko epea bukatu baino lehen.

3.– Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariak, aurreko artikuluan aipatutako agiriak edo artikulua honetako aurreko apartatuan aipatutakoak jasota, horiek aztertu eta ebaluatu ondoren, emandako dirulaguntza aldatu eta/edo likidatuko du, administrazio-bideari amaiera emango dion ebazpen baten bidez; horrez gain, dirulaguntzen zenbatekoak egokituko ditu –hala

behar denean–, itzuli beharreko zenbatekoa zehaztuko du –hala badagokio–, eta 15 eguneko epea emango du dirua itzultzeko.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariak ebatziko du bidezkoa den ala ez aldaketa baimentzea, eskabidea erregistroan sartzen den egunetik aurrera hilabeteko epean; epe hori igarota, ez bada esanbidezko ebazpenik eman edo jakinarazi, eskabidea ezetsizat joko da.

16. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan jasotako ez-betetzereen bat gertatu dela egiaztatzen bada, jasotako zenbatekoak eta dagozkien berandutze-interesak itzuli beharko zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera, hargatik eragotzi gabe dagozkion gainerako ekintzak.

a) Jasotako dirulaguntza osorik edo partez erabiltzea, ez hasierako proiektuan azaltzen zen jarduerarako, baizik eta beste baterako.

b) Aurkeztutako proiektuan aldaketak egitea, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariak baimendutako aldaketen kasuan izan ezik, aurreko artikuluan ezarritakoa dela bide.

c) Aurkeztutako eskabidean edo agirietan jasotako datuak edo dirulaguntza emateko balio izan duten datuak faltsuak izatea.

Dirulaguntzaren onuradunak dirulaguntzak emateko ebazpenean edo ebazpen honetan ezarritako baldintzaren bat bete ezean edo Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan jasotako ez-betetzereen bat dagoela ikusiz gero, prozedura-izapide egoiak bideratu ondoren, laguntza jasotzeko eskubidea guztiz edo partzialki galduko du, eta, hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko dizkio jasotako zenbatekoak, berandutze-interessekin, hargatik eragotzi gabe bidezkoak izan daitezkeen gainerako ekintzak. Hori guztia, honako dekretu hauekin bat etorritik: abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua –Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura emandako dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko araubide orokorra arautu, eta, era berean, dirulaguntzoz kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintza, araubide eta betebeharrak ezartzen dituen– eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua.

2.– Deialdian jasotako betebeharrak (hots, deialdiko konpromisoak betetzera bideratutakoak) partez bakarrik betetzen badira, jasotako zenbatekoen zati bat itzuli beharko da, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.n) eta 37.2 artikuluekin bat etorritik. Graduazio-irizpide gisa ezartzen dira ondoren jasotako baldintza osagarrien ez-betetzeak; izan ere, emandako zenbateko osoa % 20raino gutxitzea ekar dezakete, proportzionaltasun printzipioa errespetatuz, betiere.

a) Ez jakinaraztea, idatziz, diruz lagundutako jardueretan egin nahi den bariazio edo aldaketa oro.

b) Ez adieraztea. diruz lagundutako jardueri buruzko publizitate orotan, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen lankidetzak, hots, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen marka ez jartzea.

c) Hizkeraren erabilera sexista egitea.

17. artikulua.– Dirua itzultzeko prozedura.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta 698/1991 Dekretuan xedatuarekin (698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrearen kontura emandako dirulaguntzen bermeen eta itzulketen jardunbide orokorra arautu eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen baldintzak, jardunbidea eta betebeharrak ezartzen dituena), ezarritako baldintzak eta/edo betekizunak betetzen ez direnean, hau izango da emandako dirulaguntza itzultzeko prozedura:

a) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariak prozeduraren hasiera eta prozeduraren oinarrian dauden arrazoiak jakinaraziko dizkio erakunde interesdunari, eta 15 egun balioduneko epea emango dio alegazioak aurkezteko.

b) Alegazioak jasota, edo epea alegaziorik jaso gabe amaitzen bada, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariak amaitutzat joko du prozedura, ebazpen baten bidez. Ebazpen horrek amaiera emango dio administrazio-bideari.

Ebazpenean adierazten bada baldintzak ez direla bete, galdutzat joko da dirulaguntza jasotzeko eskubidea, eta, beharrezkoa bada, jasotako zenbatekoak eta aplikatzekoak diren legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusira itzultzeko aginduko da. Dirua bi hila-beteko epean itzuli beharko da, jakinarazpena egiten den egunetik aurrera. Epe hori borondatezko alditzat joko da.

c) Borondatezko aldi itzulketarik egiten ez bada, Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Ekonomia Saileko organo eskudunari jakinaraziko zaio, premiamendu-bideari ekin diezaion, aplikatzeko den legezko araudian xedatutakoari jarraituz.

d) Aplikatzekoak diren arauak ez betetzeagatik dirulaguntzak itzultzeari buruz artikulua honetan araututako prozedura ebazteko eta jakinarazteko epea sei hilekoa izango da, gehienez ere.

18. artikulua.– Datu pertsonalen tratamendua.

Deialdi honetan parte hartzen dutenen datu pertsonalak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen datuen tratamendu batean sartuko dira –«laguntzak, dirulaguntzak, sariak eta bekak» deitutakoa–. Tratamendu hori lotuta dago Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan araututakora, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduan xedatutakora, zeinaren bidez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen baitira datu pertsonalen tratamenduari dagokionez eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen baita. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo esteka honetara: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/062200-capa1-eu.shtml>

Erakundeak sustatutako laguntzak kudeatzeko baino ez dira erabiliko datu horiek, botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko. Hala nahi dutenek, legeak aurreikusten dituen eskubideak baliatu ahal izango dituzte, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko, aurka egiteko, zein Erregelamenduan aurreikusitako beste edozein eskubidetarako. Datuen babesari buruzko informazioa: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritz/datua-babesteko-ordezkaria/hasiera/>

Datu pertsonalak ez dira hirugarren herrialdeetara bidaliko, ezta hirugarren pertsonari emango ere, lege-eginbeharra betetzeko ez bada.

2021eko otsailaren 26a, ostirala

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honetan prozedurari buruz arautu gabe geratu diren alderdietan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa aplikatuko da.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokete Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean, dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 16a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MIREN IZASKUN LANDAIDA LARIZGOITIA.